

Noaua!!

www.noaua.com



Azaroaren 27an, Erle Eguna



Azaroaren 19an kiroldegian
Mikel Urdangarin, garai onenean



Alkartasuna
Elkartean
bertako
produktuak
salgai

Gure lurretan hazitako produktu hoberenak zure eskura

Alkartasuna
Nekazar kooperatiba elkartea

Ugao Industrialea 12
Tttaa / Faxa: 943 361 114
20170 USURBIL Gipuzkoa
aldeko@alkartasuna.com

Txirrikitutik !!

Gizarteak aurrera egiten duen moduan, hainbat ohitura, usadio, lan egiteko modu... aldatzen doaz eta zenbaitetan desagertzen. Argazkian ikusten duzuen, esaterako. Gaur egun, haga baten inguruan biltzen den belar edo garo pilez osatutako metak geroz eta gutxiago ikusten ditugu. Hauen orde, plastiko batean bildutako lasto fardoak nagusitzen ari dira gure inguruan. Argazkia duela bi urte Kalezarko Txara baserriko goiko lurretan aterata dago. Bi belar metak Zubietako bailara zaintzen baleude bezala ageri dira. Egunero Kalezar zein beste auzoetatik bueltaxka ematen duzuenok proba dezakezue: konta itzazue zuen ibilbidean ikusten dituzuen belar metak. Ezetz, dozenatik pasa? Bale, beharbada dezente gehiago izango dira, baina zorritarrez gero eta gutxiago.

Zalao Arnaiz Ibarguren



Egilea eta jabetza Z.A., 2003.10.25, Kalezar

Noaia!!

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
 Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaia.com
 www.noaia.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publikitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaia.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

NOAUA!k antolatu duen Kultur Asteari amaiera emango dio Mikelek.

Aurkibidea

AINHOA AZPIROZEN ANALISIA **4. ORR.**

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO PLANA **5. ORR.**

KULTUR ETXE BERRIA ZABALIK DA **10. ORR.**

Jada martxan da Sutegi Kultur Etxea. Liburutegian ezin dute mailegurik egin oraindik. Hala ere, auditorioa eta erakusketa gela zerbitzu polita eskaintzen hasi dira.



MIKEL URDANGARINEKIN SOLASEAN **12. ORR.**

AZAROAREN 27AN, ERLE EGUNA **14. ORR.**

UGARTE ETA UGARTONDO PROMOZIOAK **15. ORR.**

RAMON URIBE, LANGRAIZKO ESPETXETIK **16. ORR.**



Usurbilgo Udaia



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria



Kultura sailak diruz
 lagundutako
 aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

Zutabea !!



AINHOA AZPIROZ

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Ni ere sartu naiz kultur etxe berrian. Beheko aretoan soilik egon naiz, oraindik ez naiz sartu beste getan eta ez ditut ikusi gainerako txokoak. Behin baino gehiagotan joaten banaiz, ezagutuko ditut eta ohituko naiz. Oraindik, ordea, arrotza egiten zait. Etxe berri batean sartzea bezalakoa da. Pixka bat goxatu eta zeureganatu arte, hotza egiten da. Ez dakit horregatik den edo ez, baina nire buruak atzera egin du salto, eta kultur etxea ikusi beharrean, Udarregi zaharra ikusi dut: harrizko eskailerak, Karlos Zabalarekin marrazten egoten ginen gela eta aldameneko musikakoa (gero gazte lekua egon zenekoa), Joxe Mari Arzallusekin 5. mailan egoten ginen gela, erdiko patioan inauterietan egin genuen festa (lehenengo aldiz mutilekin dantzan egin genueneko!), eta atzean La Salle patioa, orain Askatasuna plaza dagoen lekuan. La Salleko patioaren ondoan baratza handi batzuk zeuden, Parisenekoak. Al! izan ere, Parisenea ez zegoen orain bezala berrituta. Beno, kale osoa zegoen zaharxeagoa. Dema plaza oraingo antzera, baina ikastolan genbiltzan garaian asteazkenetako merkatua hor egiten zen.

Ixkinan oinetakoak saltzen egoten zen emakumea gogoratu da frontoetik joaten zitzaizkion baloiekin, bai!

Hirugarren jolaslekua parkea genuen, eta horko txirrista erraldoia, nola ez. Aurrena estalkirik gabe, eta gero tapatuta. Orain, berriz, ezer ez. Txirrista tabernako argazkiak ikusita gogoratzen gara harekin tarteka.

Bordaxoko errotonda ere ez zegoen orduan. Eta... haren orde z zer eta nola zegoen gogoratzeko... A ze lanak! Gaztañagako baratzak, bidegurutzak... Hortik gora anbulatorioa, kiroldegia eta ikastola dauden lekuetan ere... zer ote zegoen? A bai, ikastola dagoen lekuan zelai handi bat, elurra egiten zuenean plastikoa hartu eta ibiltzen ginena.

Kultur etxetik hasi eta ikastola dagoen zelaian bukatu dut. Hariari tiraka segituko banu, soka luzea ekarriko luke. Eta herritar helduagoei galdetuz gero, are eta luzeagoa.

Harrigarria da nola ohitzen garen gauza berrietara. Berehala ahanzten ditugu lehen nolakoak ziren leku horiek edo zer zegoen. Memoria ariketak egiteko polita. Baina argazkien laguntzarik gabe, e!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Agintarien "efikazia"

Usurbilgo udal agintariak langileekin ez dutela hitz egin nahi azaldu genuen aurreko bi idatzietan. Hirugarren honetan Usurbilgo Eusko Alkartasunari eta Alkateari erantzun nahi diegu, gehiegi luzatu gabe:

1. Langileon erosteko ahalmena ez galtzeko, KPI indizea bezala gure soldatak ere %3,2 igotzea eskatu dugu behin eta berriro, gero hor lor daitekeen adostasunaren kalterik gabe. Alkatetzak eta Eusko Alkartasunak %2 igotzea eskaini digute, gero lor daitekeen akordioaren kalterik gabe. Horrela, erosteko ahalmena gutxituz bermatzen ahal dituzte langileon eskubideak? Eskuin muturreko enpresarien jarrera dirudi.

2. Udal langileon ordezkari guztiak LAB sindikatukoak gara bai. Hauteskunde sin-

dikaletara bi zerrenda aurkeztu ziren arren (LAB eta ELA) hautatu guztiak LABekoak izan ginen. Sindikalgintzan, zorionez, hautatuak hartzen dituzte karguak. Politikagintzan bestelakorik ikusi dugu. Usurbilen bertan, herriak hautatu gabeko zinegotziak dauzkagu eta batzuk gainera agindu nahian.

3. Ez dugu batere gezurrik esan. Idatzi eta sinatu genuena edonork konprobatu dezake. Batzorde eta Plenoen iraupena Aktetan agertzen da eta bertan ikusten denez, zenbait bilerak ez du 5 minuturik ere irauten. Adibidez, Uztailaren 15ko Kontuen Batzorde Bereziak 2 minutu iraun zuen. Eta zinegotzi bakoitzak 50 euro kobratu zituen, txintik esan gabe. Kalkuluak eginez, 1.500 euro/orduko edota 250.000 pezeta/orduko. Asko samar

ezta? Gero ez da dirurik gelditzen nonbait, langileek soldatak eguneratzeko.

4. Efikazia aipatzen zenuten azken idatzian. Efikazia erakutsi duzue zuen interesak defenditzen eta poltsikoa betetzen, ez duzue inolako gaitasunik erakutsi udal lanpostuen berrantolaketa amaitzeko. Aurreko Korporazioak ia amaitzear utzi zuen prozesua, behin behingo izaeraz onartuta. Zuek, bere horretan utzi duzue usteltzen. Ez zarete gai izan ez aurrekoa amaitzeko ezta ezer berrikerik onartzeko ere.

Ia noiz iristen zaigun langileoi zuen "efikazia".

Usurbilgo Udaleko langileen ordezkari-tzan, Aitor Eleta eta Begoña Rodríguez da la Fuente.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 25.

Azaroaren 20an, bigarren eskuko merkatua Dema plazan

San Markos Mankomunitateak berrerabilpena sustatzeko ekimen berri bat jarri du martxan. "Merkabi San Markos" izeneko azoken bidez, bigarren eskuko produktuak saldu eta erosteko ohitura indartu nahi du. 10 izango dira egingo diren azokak. Usurbila azaroaren 20an iritsiko da, Dema plazara. Azoka goizeko 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da.

Helena Egurrola San Markos Mankomunitateko teknikariak kanpaina honen aurkezpenean adierazi zuenez, *"berrerabilpen eremuan etengabe lanean diharduten elkarteek eta erakundeek hartuko dute parte. Baina herritarrek ere, parte hartze-ko aukera izango dute"*. Produktu erabili- ren bat baduzu, egoera onean badago eta saldu nahi baduzu, azoka honetaz balia zaitezke. Deitu ahalik eta azkarren telefono zenbaki honetara: 943 67 06 37.

Zaborra murrizteko gida

Kanpaina honen aurkezpenean, San Markos Mankomunitateak zaborra murrizteko gida berria aurkeztu zuen.



SAN MARKOS MANKOMUNITATEAK ANTOLATU DU AZOKA.

"Zure zaborra murrizteko gida" izenekoan, berrerabili edota birziklatzeko adibide ugari jaso dira. Usurbilen bezalaxe, San Markos Mankomunitateko herri guztietan banatua izango da, etxeez etxe gainera.

132.500 euroko aurrekontua

Kanpaina hauen aurrekontua 132.500 eurokoa izango da. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasoko du San Markos Mankomunitateak.

Udala eta zahar egoitzen arteko hitzarmena

Azaroaren 4an, udalak eta herriko hiru zahar egoitze- tako ordezkariak dirulaguntzen inguruko akordioa sinatu zuten. Akordioak lau urteko luzape- na izango du.

Kaleberriko Gure Pakea, Santuene- ko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate egoitzek orain arteko dirulaguntzak jasotzeko zer nolako baldintzak bete behar dituzten zehaztu dituzte hitzar- men bidez.

Era honetan, herriko beste elkarte batzuekin egin bezala, udalak zahar egoitzetako ordezkariekin ere hitzar- men bidezko akordiora iritsi da.



Lan mundua euskalduntzeko plana aurkeztu da

Azaroaren 9an, Buruntzaldeko lan munduko euskara erabile- ra normalizatzeko plana aur- keztu zen udaleko pleno aretoan. Buruntzaldeko udal ordezkariak, tarte- an Usurbilgoek, bailarako enpresak eus- kara planak abian jartzera animatu dituzte. Iaz, Usurbilgo Izaguirre eta Luzuriaga enpresek euskararen alorreko plan hau jarri zuten abian.

Lasarte-Oria eta Hernaniko Euskara batzordeetako buru Juan Mari Iradik eta Txema Mercadok hurrenez hurren, eta Emuneko (lan mundua euskalduntzeko kooperatiba) ordezkari Denis Elortzak eskaini zuten prentsaurrekoa. Euskararen etorkizuna bermatzeko lan mundua eremu estrategikotzat jotzen dute eki- men honen bultzatzaileek. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,

Urnieta eta Usurbilgo udaletako euskara zerbitzuek eta horiek plana gauzatzeko kontratatu duten Emun kooperatibak, besteak beste, honako ekimenak jarriko dituzte abian ikasturte honetan: bailara- ko lan mundua euskalduntzeko bihilabe- teroko buletina helaraztea enpresa eta eragileei; Emunen webgunea indartu... Hala nola, prentsaurrekoak eskainiko dituzte egiten denaren berri komunika- bideek heda dezaten.

Gainera, sindikatuei zuzendutako pres- takuntza saioak antolatu dituzte, plana- ren berri eman eta eragile horiek ekimen horren parte izan daitezten. Azkenik, enpresetara bisitak egingo dituzte.

Diruz lagundutako ekimena

Hori guztia gauzatzeko, enpresak diruz laguntzea aurreikusi dute bailara- ko udalek.



USURBILGO UDALBATZA ARETOAN EGIN ZEN PLANAREN AURKEZPENEA.

Udal ordezkariak, beraz, enpresak euskara planak abian jartzera animatu dituzte. Arestian aipatu bezala, iaz Usurbilgo S. Izaguirre eta V. Luzuriaga enpresak izan ziren plan hauek abiarazi zituztenak. Ez daitezela bakarrak izan.



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Xumetaneko Iñakiri

Nire anai-arrebek ale honetako artikulua beraiek eta beren koadrilakoek idatzi nahi zutela komentatu didate eta hemen doakizue Akerra gaztetxeko beteranoek Xumetaneko Iñakiri idatzitakoa.

“Kaixo Iñaki:

Inoiz ez diagu eskutitzik idatzi, zer esan nahi eta hiregana joaten gintuan, baina oraingoan ezin eta idazteari ekin zioagu.

Urteak dituk zuen etxetik barrena gabiltzala. Lehen oroitzapenatariko bat haurtzarotik zetorkiguk. Jolasean genbiltzan, terrazara igotzeko karra-tu handiz osatutako eskailerapean zen harrizko bankuan. Medikuetan ari gintuan eta hire aita etorri huen gurekin jolastu nahi ziala esanez.

Geroxeago txupa-txups eta pipak eroatera joa-

ten gintuan eta Amona Iñaxi ere hantxe aritze huen sukaldean.

Urteak aurrera eta orduan eta ordu gehiago pasatzen genizkian hantxe, barraren ezkerraldean zen mahai hartan. Lehenengo zigarroak jendaurrean, lehenengo afariak, baita elkarrizketa amai-gabeak ere, eztabaidak eta nola ez, hi eta Bego ere saltsa hauen artean.

Ixilaren fama duk, baina guk ezagutu diagu Iñaki hiltuna, alaia eta txisteak kontatzen iaioa gainera.

Beno, gero arte Iñaki. Konturatzen al haiz ze oroitzapen politak zeuzkeagun? Inoiz ez dizkiagu ahaztuko.

Eskerrik asko Iñaki

Eskerrik asko Xumeta

Akerrako beteranoak”



BEGOÑA
REKONDO

Kaleberri

Antzerki ikuskizuna

Sutegi kultur etxea zabaldu zen egunetik bost egunetara, azaroaren 10ean eta NOAUA!k antolatuta, bertako auditorioan, antzerki obra bat ikusteko aukera izan genuen, Lakrikun antzerki taldearen eskutik, “Grebán Gaude” komedia.

Azpeitiako talde hau hiru antzezleez osatuta dago: Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi eta Idoia Uranga.

Antzoki berria, eserleku beltz eta atze-oihal gorri deigarri batekin apainduta, bete-betea zegoen. Zortziak jo bezain pronto argiak itzali ziren eta aldi berean oholtza gainekoak piztu egin ziren. Dekoratu oso arrunta zen. Atzeko aldean panel beltz batzuk. Bertan itsatsita, kartel txuri batzuk beltzez margotutako kontsigna batzuekin, grebari buruz, noski. Taula gainean berriz, kolore bizietan margotutako hiru eserleku. Musika lagun zutela atera ziren bertara hiru protagonistak, beltzez jantzita eta bakoitza mantal aurreko batekin, hala bere lanaren ezaugarri bat adieraziz. Pankarta handi bat zeramaten eta

“greban gaude”, “greban gaude”, oihukatzen zuten. Hortik aurrera, oso erritmo bizian solasaldi bat sortu zen beraien artean. Bertan bakoitzaren pentsaera azaltzen zen, gai ezberdinei buruz: maitasuna, familia, sexua, ametsak,... Hiruron ogibidea garbitzailearena da. Batek tanatorio batean egiten du lana, non, sendiak ez daudenean, hildakoekin hitz egiten du. Beste batek berriz abokatu baten bulegoan, eta zuzenbide ikasketak egiten ari denez, abokatuak berak baino gehiago daki eta askotan beraien aholkuak behar ditu. Eta hirugarrenak andere aberats baten etxean garbitzen du, eta berarekin konfidantza handia duenez gero, bere gizonarekin dauzkan erlazioari buruz hitz egiten dute.

Azken finean emakume guztiek halako egoe-rak bizi izan ditugu eta era batean edo bestean isladatuta ikusi ginen.

Saioak ordu eta laurden iraun zuen eta irteerakoan entzun zenez jendea gustora atera zen bertatik. Benetan umorez eta kritikaz batetako tartea ostegun arratsaldekoa.

Aurrera begira

Kaixo irakurle, hemen natorkizu berriz Kere zure etxe epelera. Ez da giro kanpoan aspaldi honetan. Hotza, elurra eta euripean gabiltza azken egunotan. Aterpetik aterpera ibili beharko dugu hemendik aurrera baino ezin goibel jarriko gara, zeren, urtaro honek baditu hainbat alde positibo: goizago etxeratzuz, irakurtzeko, sukaldean aritzeko, familia giroan, lehiotik denbora luzez begira egoteko... Enekok esaten zuen bezala, ezin egongo gara beti neguan euria besterik egiten duen ideiarekin.

Datorren negua bukatu ondoren, Ugarte baserri atzeko lantegiak ostutzeaz batera, berauek botatzen hasiko dira, etxe mordoa bait doaz bertan. Usasku aldera joan beharko

dugu argazkiak ateratzera, oraina eta ondorena alderatzeko (Txirrikitutik atalean azaltzeko modukoa izango da lehengo Ugarte baserriaren inguruko argazkia).

Bestalde, honezkero, datorren urtean edateko izango dugun sagardoa kupeleratua izango da (Arratzainen, Egioletan, Egiluzen, Saizarren, Olanonean...). Pasa den astean egin zuten barrikotea auzoko elkartean eta garai txarrak ez dira hauek lagun artean sagardoaz gain gaztain erre batzuk jateko, auzotar guraso batzuk Haur Eskola azpian egin zuten bezalaxe.

Beno ni agurtzera noa. Azkenean kultur etxeko liburutegiak ireki ditu ateak eta hemendik aurrera gure esku dago Kultura.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Auzoa, auto eskolen topagunea

Altza, Solozabal, Lasarte, Lagunak... Txarteltxoa kotxe gainean ipinita dute la, auzotik barrena ibiltzen diren autoetako batzuen izenak baino ez dira. Urte osoan zehar, inguru hauetatik makina bat auto eskoletako ibilgailu igarotzen da. Egun berean, auzotik bat baino gehiago ere igaro izan dira; tartean, gainera, Orereta, Oiartzun eta urruti samar dauden inguruetatik etorritakoak. Irakasleek aurkitu dute auzo honetan, ikasleak frogan jarriko dituzten gune ugari. Karobi taberna pareko Stop seinalea, errotonda berri-
ra jaisteko *ceda el pasoa...* Askok kotxearen noranzkoa aldatzeko, Udarregi ikastola pareko aparkalekua edota errotonda berria hautatzen dute.

Onerako ala txarrerako, argi denez, ikasle askok gainditu beharreko oztopoen zerrenda beltz horretan daude auzoko hainbat gune.



Baina beste erremediorik ez eta, azterketa egunari begira, ikasleek zailtasun horietan trebatu beharra dute. Hori bai, horrelakoetan guztioi gertatu izan zaigunez, gidabaimena eskuartean izanda ezagutzen dira errepideak eta errepide bazterrak. Gidabaimena eskuratzear zaudeteno, zorte on!

Atxegalde



ARITZ
GORRITI

ALEX
TELLO

Santuenea

Katua eta zu

Urbila bisitan etorri zara. Aspaldian elkar ikusi gabe eta batera egotearen, hemen izan zaitut. Zu ikustek eragin didan ezustekoa disimulatu dudanean, keinuari ez diozu merezi ez duen garrantzirik eman. Igarri duzun jokaera ustela. Une horretan, ez geunden biok bakarrik, inguruan jende gehiago aurkitzen zen.

Santuenean, bertara ekarri zintudan lehen aldia akordatzeko naiz. Ez da batere aldatu, bere horretan darrai.

Udazken arratsalde euritsu eta ilun honetan, erlojuaren menpe egoteak ez du balio. Pasa ditugun hiruzpalau orduak ez dira nahikoak izan, ez behintzat elkarrekin, elkar esan eta egiteko asko dugunean.

Denbora eten. Ahalmen ezinezkoaz baliatuko

nintzateke gaurko tartearen iraupena malgutzeko. Hots, nahikotasuna delakoaz asetzeko. Zurekin merezi bezala egoteko. Biok dakigun lez.

Joaterakoan, semaforoaren zubian, katakume beltza ikusi dugu autobidean gora eta behera, noraezean, etxetik urruntzen, itzulerarik izango ez duen bidean (!). Autoa gelditu eta bihotz onekoa zu, katuaren bila joan zara. Halabeharrez, gauak bahitu du. Ez dut uste katutxoa auzotik berriro ikusterik izango dugun. Inguru hauetan, zuri ere ikusiko al zaitut?

Dena dela, imajinazioa bide, ipuin batean berreskuratuko zaituztet: zu eta katua. Katua eta zu. Zure aroma eta koloreekin, berdeak diren horiek, nahastuko ditut kolore hOriak...

NEREA
AIZPURUA

Urdaia

Txantxangorriak San Estebanen

Oraingo honetan ere, idaztea tokatu eta zeri buruz idatzi ez dakidala aurkitu dut nire burua... Leihotik begira jarri eta aurrez-aurre txantxangorri batekin egin dut topo. Guztien artean aski ezaguna bada ere, ezer gutxi dakidala ohartu naiz hain ezagun dugun itxura pottolo eta izaera lotsagabea duen hegazti honi buruz.

Kondaira ezagun baten arabera, Jesukristo gurutzean zegoela txantxangorri bat hurbildu omen zitzaion eta buruan zituen arantzak kendu omen zizkion. Baina horretan ari zela, odol-tanta bat bularrera erori, eta egunsenti ederrenetako eguzkia bezain gorri gelditu omen zitzaion betiko.

Hala ere, itxuraz hain ahul eta goxo den txoritxoak, lurraldea zaintzeko orduan izaera oldarkorra eta odolberokoa du eta eginkizun honetan denbora luzez arduratzen da.

Txantxangorria oso zorrotza da bere lurraldearen mugak zaintzen eta borroka egiten du ber-



tara hurbiltzen diren espeziekide guztiak bidaltzeko. Gainera, urte guztian mantentzen dute jokabide hau arrek zein emeek. Lurraldearen jabetza aldarrikatzeko, normalean ustiatzen dituen sastraketara, edo zuhaitz zein antzeko leku deigarrietara igota, kantu dotore eta ederra abesten du.

Neguan intsektuak topatzea zailagoa dela eta, fruitu eta hazi bila ibiltzen da eta San Esteban alde honetan ere topa genezake.

Hainbat aldaketa Aginagan

Kaixo denoi! Oraingo honetan, niri tokatu zait Aginagako berri ematea eta azken urte hauetan burututako aldaketa bidean datozenak aipatu nahi nituzke.

Azken urte hauetan, zenbait aldaketa eginak dira gure herrian, hainbat etxe berri esate baterako eta honekin jende berria iritsi da Aginagara. Gaur egun ere, gauza bera gertatuko da, izan ere, Mitxerkoenea etxearen eta Aginaga Sagardotegiaren arteko zelaian, zenbait etxebizitza egiten hastera doaz. Honez gain, beste aldaketa nabarmena, frontoiarena izan zen. Honek eskolaren eta plazaren desagertzea ekarri zuen. Hala ere, ez ginen eskolarik gabe gelditu, elizako lokal batzuetan egin baitzen eta gaur egun, bertan dirau.

Beste aldaketa batzuk daude proiektuan. Proiektu horietako bat, jada aurrera eramaten hasita dagoena, haurrentzako parkea da. Eskolaren ondoko plazan egin nahi da, izan ere, daukaguna

txiki eta eskas xamarra izateaz gain, ez baitago batere toki aproposan kokatuta, autoak direla eta umeak arriskuan baitaude. Bestalde, beste proiektuetako bat haurrentzako ludoteka eta zine areto txiki bat egitea da. Honetarako, gaur egun erabilpen murrizta duen zine lekua erabiliko da eta ideia bi zatitan banatzea da, alde batean, ludoteka banatuko litzateke eta bestean, zine aretoa. Hirugarren eta azken aldaketa proiektuan dagoena, Aginagan KzGunea jartzea da. Honetarako, elizarena den beste lokal bat erabiliko litzatekeelarik.

Aldaketak alde batera utzita, aipatu behar, Azaroaren 27an jubilatuen bazkaria egingo dela eta urtero bezala, 80 urte dituzten jubilatuei omenaldia egingo zaiela. Aurtengoan, bost emakume izango dira omenduko dituztenak: Rufina Arregi, Maria Luisa Alargunsoro, Benantxi Ugarte, Dolores Bengoetxea eta Eustakia Kamino. Zorionak alde z aurretik! Merezi duzue eta!

Aginaga



ANE
MANZISIDOR

Correos, delinkuente

Espainiako monopolioa. Bertan ardura eduten langileak, funtzionario. Gauzak ondo egin edo gaizki egin, hilaren 30ean jorjala igual-igual jasoko dute. Dena libre dute. Baita karteroak prekarioan kontratatzea ere. Eta kontratu prekarioa duen karteroak kartak entregatu ez, edo berandu entregatu, edo karta guztiak buzoi batean utzi...

Hori Correosen kontua da. Guk, selloa ordaintzean, zerbitzu horixe pagatu dugu: karta edo pakete hori jasotzaileari garaiz entregatzea. Sellotik aparte, Correosko pertsonalari soldata guk ordaintzen diogu; baita beren lokalak, automobilak eta publizitate handi-mandi gezurtia ere. Hori dena pagatuta, kontratuak eta barneko funtzionamendu txarra ez da gure problema.

Zubietar batek azaroaren 9an Baionako karta bat (28 egun geroago), Madrilera bat (21), Bartzelonakoa (16), Donostiakoa (17), Eibarkoa

(20) jaso ditu, besteak beste. Denak egun berean. Buzoian sartu ezinik, lurlean blai-blai eginda zeuden.

Bi delitu ikusten ditugu Correosen jokaera horretan: batetik, ez du kontratua betetzen. Bigarrena, gure korrespondentzia gordetzea, atxikitzea, sekuestratzea, hitz batez.

Horren kontrako protesta azaldu nahi baduzu, ordea, Correosko emakume batekin hitz egiten saiatuko zara; baina emakume horrek, zuk baino fuertego hitz egiten duenez, isildu egingo zara. Edo emakumeari esan beharko diozu protesta zuk egin nahi duzula, aitzakiak aditzeko tarterik utzi gabe.

Zubietako Herri Batzarrak kontu hau aztertua du. Orain, neurriak hartu beharko. Akaso kalte eta galerengatiko ordain demokratikoa zor zaigu. Nahikoa lapurreta eta bidegabekeria egin digute espainolek!

Zubiet



EDORTA
AGIRRE

Jende ugari hurbildu zen Sutegi ezagutzera

Baten faltan, bi inaugurazio ekitaldi izan zituen Sutegi kultur etxeak. UHLk egin zuena batetik; udalak antolatu zuena, bestetik. Tentsio uneak izan ziren, bereziki, udal korporazioko kideak Sutegira hurbildu zirenean. Zalapartak zalaparta, jende ugari bildu zen kultur etxe berria ezagutzera.

“Lapurrak” oihuen artean sartu zen udal korporazioa Sutegira. Eraikin berriko atarian, hitz batzuk egin zituen Luismari Ormaetxea alkateak baina Sutegi kanpoan zirenak oihuka hartu zuten alkatearen hitzaldia. Aurkezpen-hitzaldiaren ondoren ireki ziren Sutegiko ateak. Txistularien doinuen artean, jende ugari sartu zen eraikin berria ezagutzera. Horietako batzuk, “Kultura bai, bazterketarik ez” orrialdeak erakutsi zituzten. Solairu ezberdinak ezagutu ondoren, hamaiketakoan parte hartzeko aukera izan zuten bertaratu ziren denek.

Alkatearen hitzaldia

Inaugurazio ekitaldian, Luismari Ormaetxea esandakoa duzue hauxe: *“Eguerdiko on ekitaldi honetara hurbildu zareten guztioi. Eraikin hau aurreko legealdian mamitu zen eta hasiera eman zitzaion, eta oraingo legealdian gauzatu eta bukatu.”*

Bere osaketa nahiz luze joan esan beharra daukat azken emaitza herriko kultur ekimena indartzeko adina izango dela.

Gurekin ditugu Jose Luis Loinaz arkitektoa eta bere lan taldea, eraikina sortu eta eraikuntzaren jarraipena egin dutenak. Beraien irudipenean sortutako eraikina gaur geurea egiten dugu, denon probetxugarri.

Lau solairu ditu eraikinak. Goiko biak udal liburutegia osatzen dute. Behe solairua erakusketa aretoa izango da. Eta sotoan, auditorioa eta pilotarientzat aldagelak ditugu. Datorren astetik aurrera eraikin osoa izango da erabilgarri: astelehenetik aurrera (azaroak 7) liburutegia, asteazke-



INAUGURAZIO EGUNEAN
BERTAN, JENDEA KONTSULTAK
EGITEN HASI ZEN.

netik aurrera (azaroak 9), erakusketa aretoa, kontsumo arduratsuen erakusketa batekin, eta hilaren 10ean auditorioa estrenatuko da antzezlan batekin.

Bukatzeko, eskerrak eman, Jose Luis Loinaz eta bere lan taldeari; Salome Portu eta Ibon Beristain zinegotziei eraikina bukatu eta prest egon zedin egin duten lan guztiagatik, baita udal langileei ere, beraien aportazioarik gabe gaur hemen ez baiken egongo; eta hurbildu zareten guztioi ere, azaldutako interesagatik”.

Kultura sustatzeko tresna ederra

Udalak antolatutako inaugurazioa eguerdiko 12:00etan hasi zen. Ordubete lehenago, UHLk deiturikoa egin zen. Sutegi atarian burutu zen ekitaldian, Arantxa Manterolak hitz batzuk zuzendu zizkien bertaratu zirenei. Espetxean diren herritarrek gogora ekarri eta ezker abertzaleko hautetsiak omendu zituzten. Dantzari, bertsolari eta txalapartariak girotu zuten ekitaldia.

Arantxa Manterola UHLko kideak inaugurazio ekitaldian esan zuenez, Ezker Abertzaleak urteetan bultzatutako proiektua da Sutegi: *“ez da nolanahiko lana izan, ez horixe. Dena bideratuta eta lanak bukatzeko zorian hartu arren, hamaika gorabehera izan dituzte gaur udalean ilegitimoki dauden agintariak ditxosozko obra amaitzeko”,* adierazi zuen Arantxa Manterolak.

Usurbil bezalako herri txiki batentzat, tamaina honetako azpiegitura aurrera

eramatea lan handia dela aitortu zuen UHLko kideak. Sutegiren inguruko lan eta fase ezberdinetan, Ezker Abertzaleko korporazio ezberdinetako kideak aritu direla adierazi zuen Arantxa Manterolak.

Emaitza hori borobilagoa izan zitekeela uste dute UHLkoek. Aurreko korporazioak Potxoenea proiektua “puntu-puntu” utzi zutela, “obrak adjudikatuta, diru-iturriak lortuta... baina oraingo udal-agintariak ez dira gauza izan gazte usurbildarrentzat eta beste kultur-ekimenentzat pentsatutako egitasmoa gauzatzeko eta, zoritxarrez, ez dute aurrerantzean ere gauzatuko proiektua pikutara joan delako”.

Sutegi atarian egindako hitzaldian, Arantxa Manterolak herrigintzaz hitz egin zuen: *“gure ordezkaritza politikoaren onarpena erreibindikatzearekin batera, herrigintza egiten saiatzen gara, Ezker Abertzaleak betidanik defendatu dituen ildoak ardatz hartuta: herri euskalduna,*



UHLK DEITURIKO EKITALDIAN
JENDE UGARI BILDU ZEN.

solidarioa, irekia, herritarren berdintasuna lortzera bideratua, herri-izaera mantenduko duena, herritarren arteko harremanak sustatuko dituen”.

Bukatzeko, kultura sustatzeko Sutegi tresna ederra dela esan zuen UHLko kideak: *“hemen eraikina daukagu, lau pareta eta zenbait azpiegitura. Baina hori ez da nahikoa. Orain tresna horri edukia, bizia eman behar diogu. Eta hori ez dago soilik udalari, herriko talde eta herritar guztioi baizik”.*

Lehen erakusketan, kontsumoa aztergai

Kontsumoaren Inguruko Erakusketak Ibiltariarekin zabaldu zituen Sutegik lehen aldiz bere erakusketa aretoko ateak. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Sailak antolatuta, azaroaren 9an hasi eta 13ra arte luzatu zen. Egun haietan kontsumitzaileen eskubide eta betebeharren, etiketen eta teknologiaren inguruan hainbat gauza ikasteko aukera izan genuen. Erakusketa interaktiboak geure kontsumo ohituretan eragin nahi zuten, jendearen parte hartzea bultzatuz, eta horretarako panel interaktiboak eta ordenagailuak erabili zituzten.



Lehen hitzaldia, menopausiari buruzkoa

Guraso Eskolak menopausiaren inguruan antolatu duen hitzaldi-sorta azaroaren 10ean hasi zen. Aitziber Aizpuru dietistaren hitzaldira emakume ugari hurbildu zen. Agertu zirenek interes handia azaldu zuten eta galdera ugari izan zen. Hiru hitzaldietara agertzea garrantzitsua dela azpimarratu zuten Izadia taldeko hizlariak. **Hurrengo saioak azaroaren 17an eta 24an izango dira**, Miren Telleria psiko-sexologoaren eta Izar Arregi psikologoklinikoaren eskutik. Bi hauek ere, **Sutegiko auditorioan, 18:30ean**.



Lehen antzerki saioan, umorea nagusi

Azaroaren 10ean hasi zen NOAUA!k antolatu duen Kultur Astea. Eta nola hasi gainera. "Grebak gaude" antzerki saioak jende ugari erakarri baitzuen kultur etxe berrira. Menopausiari buruzko hitzaldia bukatu eta segidan, 20:00ak emateko minutu gutxi falta zirenean, lagun ugari sartu ziren auditorioan. Emanaldia hasi zenean, jada ez zen eserlekurik libre. Azaroaren 15ean, laburmetraiak ikusteko aukera izan zen. **Azaroaren 17an, osteguna, Khan Tengri mendira egindako espedizioaren bideoa eskainiko dugu, 20:00etan hasiko da proiektzioa.**



Itzaga mendia eta Itoiz ezagutzeko irteera

Azaroaren 20an, Nafartarrak kultur taldeak eta Andatza mendi taldeek **mendi irteera** antolatu dute. Zangotzaldean dagoen Itzaga mendia (1.361 m) igoko da eta zeharkaldian zehar, Agoizko aditu batek Itoizko urtegiak izan ditzakeen ondorioak esplikatu ditu. Paraje ederrak ikus daiteke gailurretik eta bi klimetako mendizerrak ere ikus daitezke. Jaitsi ondoren, ostatu batean bazkari bat egingo da bertako lagun talde batekin. Izena eman nahi duen orok honako telefonoetara deitu dezake: 943 361 109 / 943 372 915.

Zumarte Musika Eskolak Santa Zezili gogoan

Azaroaren 20an, igandea, **ATxistulari eta Trikitilari Taldeak kalejiran** ibiliko dira, eguerdiko 11:30ean hasita.

Azaroaren 22an, Santa Zezili egunean, Zumarteko musika talde asko bilduko dira **Sutegi Kultur Etxeko auditorioan**. 19:00etan hasiko den jaialdian, talde hauek arituko dira: Alboka Taldea, Txistu Taldea, Kitarra-Flauta taldea, Trikitixa-Pandero Taldea, Zumarte Txiki-Orereta Txiki Abesbatza, Zumarte-Orereta Abesbatza, Zumarte Gazte-Oinarri Abesbatza. Zuzendaria: Imanol Elizasu Lasa.

Mendebaldeko Sahararen aldeko ekitaldiak

Azaroaren 23an, Mohamed Laabeid hizlariak "Mendebaldeko Sahara: noiz arte" liburua aurkeztuko du **Sutegiko auditorioan**. 19:30ean hasiko den hitzaldian, gainera, Sahararen inguruko DVD bat eskainiko dute.

Azaroaren 26an, larunbata, elkartasunezko ekitaldia egingo da Artzabalgo parkean. 12.00etan, Euskadiko Polinario Fronteko ordezkari batek hartuko du parte. Aurreksua, txistulariak, hamaiketakoa.... 14:00etan, bazkaria. (Bazkarirako alde aurretik izena eman 600 440 179 telefonora deituz).

Larazaintza
gortak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Larazak
Larazak
Landareak
San Esteban
343 362 255
343 366 054 fax

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Azaroaren 19an, larunbata, Oairdo kiroldegian Mikel Urdangarinen kantaldia

Dana izeneko diskoa aurkez-
tera etorriko da gure herri-
ra Mikel Urdangarin kanta-
ria. Atsedean luze baten ondoren
indarberriturik, zornotzarra unerik
gozoenean igoko da Oiardo kiroldegi-
ko taula gainera.

NOAUA! Disko berria entzun eta
gero, taldea sendotu egin dela irudit-
u zaigu. Ez dakit zuk ere itxura hori
hartu ote diozun...

Mikel Urdangarin. Ongi dago lehe-
nengo galdera hori izatea, ez didate gai-
nera gehiegi galdetu. Niretzat disko
honen kosketako bat hor dago, lagun-
tzan. Baietz esango dizut, inoiz baino
gehiago sentitzen naiz ondo lagunduta
nagoela disko eta zuzeneko honetan.
Uste dut gauzarik zailenetakoa dela
musikan bidelagun egokiak topatzea.
Orain arte asko kostatu zait, behintzat
era orokor batean, hala sentitzea, bene-
tan babestuta nagoela eta taldekideek
erabat sinisten dutela nire proposame-
nean. Hori gertatu zait disko honekin,
eta lan egiten egon naizen azken bi urte
hauetan.

MIKEL URDANGARIN

“Intentsitate handiko
emanaldia izango da,
oso dinamikoa”

N. Dena den, zu izan zara arraunlari
denen patroia.

M. U. Niri asko gustatzen zait elka-
rrietzeko eta ados jartzea gauzak erabaki-
tzeko orduan, baina batzutan erabakiak
hartu behar dira, eta zazpi lagunek ezin
dute erabaki bat hartu. Niretzako pribi-
lejio handia da oraingo momentua,
batez ere musikalki sendo ikusten dudu-
lako neure burua. Elkarrekin arraunean
gabtza eta niretzako hori da lorpenik
handiena.



“DANA” IZENEN DISKOA AURKEZTERA ETORRIKO DA GURE HERRIRA.

Uste dut apustu sendoa egin nuela
bere garaian, eta momentu honetan
ikusten dut gero eta gehiago gozatzen
dudala taula gainean, ez diodala bizi-
tzen ari naizen une honi alde egiten utzi
nahi. Zeren benetan ez baitakit noiz
arte egongo garen, ez dago gure esku
etorkizuna.

N. Prentsan irakurri ditut “aro berri”
baten hasiera dela disko hau.

M. U. Beno, aro berriarena gehiago
dator kanpoko begietatik, agian behin
edo behin erabili izan dut hitz hori eta
asko nabarmendu da. Baina niretzat aro
berri bat egun berri bat da, argitzen den
egun berri bat poztasunerako arrazoi bat
da. Kontua da diskoa urtebeteko atsed-
ena eta gero datorrela, eta, nik uste, isilu-
ne luze batetik datorren hurrengo pau-
sua ia-ia aro berritzat eman daitekeela.
Nik momentu hau horrela ikusten dut:
alde batetik XXI. mendeko ateak pasa
ditugu eta etengabe mundua aldatzen ari
da. Musikan ere, hala gertatzen ari dela
uste dut. Nik uste, musikariok iparra ez
galtzeko leku bat hartzen jakin beharko
dugula. Aro berri bat dago, baina ez

niretzat bakarrik, nire belaunaldi guztia-
rentzat baizik. Horretaz gain, nik pertso-
nalki atsedean bat hartu dut, arnasa har-
tzeko, birrikak puztu eta berriz bidea ibil-
tzen hasteko. Eta lehenengo pausua sen-
doa izatea behar nuen gainera, horreta-
rako behar nuen atsedena, indarrak bil-
tzeko. Eta disko hau behintzat atsedean
horretatik jaio da.

“Kantu zaharrak ere joko ditugu”

N. Amaitu baino lehen, nolakoa
izango da Usurbilen eskainiko duzun
jaialdia? Aurreko diskoetako kantuek
ere eskainiko al dituzu?

M. U. Aurreko diskoetako kantuen
bertsio batzuk egingo ditut baina ikus-
pegi berri batez. Disko berria aurkez-
tuko dugu Usurbilen baina kantu zaha-
rrak ere batuko ditugu, eta beno, nahiko
nuke bai kantu zaharren eta bai berrien
arteko koherentzia bat ikustea. Asko
gozatzen ari gara zuzeneko emanaldiare-
kin. Nik uste intentsitate handiko ema-
naldia dela, dinamikoa eta bidaia luze-
koa, bai indarrean eta baita musikalki
ere; jendeak hori ikusiko duela uste dut,
emanaldi bizi bat, behintzat hori da nire
asmoa.

Ibilbide oparoa

Mikel Urdangarin zornotzarra euskal kantagintzak azken urteotan eman duen izenik garrantzitsuenetakoa dugu. "Haitzetan" lanarekin estreinatu zen, gitarra eta txeloz jantzitako doinuak, ahotsa ardatz dela. "Badira hiru aste" diskoan Eskoziara egindako bidaiaren gorabeherak kantu bihurtu zituen. Landuagoa eta sakonagoa, 2000n "Espilue" aurkeztu zuen Durangoko azokan, arrakasta handia lortuz. Handik gutxira, Kirmen Uribe idazlea eta Bingen Mendizabal musikariarekin elkarlanean, "Bar Puerto" lan literario-musikala kaleratu zuen. 2002an "Heldu artean" izeneko disko berria aurkeztu zuen eta 2003ko abenduan zuzeneko DVDa.

Urte horretan bertan, 2003an, "Zaharregia, Txikiegia agian" lan multidisziplinarrean aritu zen Kirmen



Uribe idazlea, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal musikariak eta Mikel Valverde ilustratzailearekin batera.

Urtebeteko atsedenaldiaren ondoren, indartsu bueltatu da "Dana" izenburua daraman diskoarekin. Lan hurbila, beroa eta ausarta. Musikari talde sendo baten babesean, maila gorenera iritsi da zornotzarra. Une gozoa bizi du Mikelek eta hau guztia Oiardo kiroldegian ikusteko aukera izango dugu. Azaroaren 19an, ez ahaztu.

Sarrerak Bentan, Txirristan eta NOAUA!n salgai

Asiko dira inguruko herrietatik Agaldezka deitu dutenak. Sarrerak jada salgai dira Bentan, Txirristan eta NOAUA!n, 10 eurotan. NOAUA!ko bazkideek sarrera merkeago eskura dezakete, 8 eurotan. Baina elkarteko bazkide direnak NOAUA!ko egoitzatik pasa beharko dute sarrera hartzera. Tabernetan bakarrik 10 eurotakoak salduko dituzte.

Kontzertuaren egunean, kiroldegian ere salgai jarriko dira. Takilla gaueko 21:30ean zabalduko da, jaialdia hasi baino ordubete lehenago.

Kiroldegiko taberna zabalik izango da jaialdiaren egunean

Mikel Urdangarinen kontzertuan, taberna zabalik izango da. 21:30etatik aurrera, aukeran, kafea, freskagarriak, garagardoa, ura...

Asia erdialdeko parajeak ezagutzeko bideo emanaldia

Aurtengo udan, Asia erdialdeko lurralde arrotzetan ibili da Koldo Huegun usurbildarra. Txina, Kazakhstan eta Kirgizistango mugetan, Asia erdiguneko mendebaldean den Tien Shan mendilerroan.

Mendilerro horretan kokatzen da Khan Tengri mendia.

NOAUA! Kultur Astearen egita-

rauak dakarren bideo emanaldi honen bidez, lurralde arrotz hauetara nola iritsi eta igoeraren nondik norakoak azalduko dizkigu mendizaleak berak, Koldo Huegunek. Bertakoen bizimodua eta ohiturak ere ezagutzeko aukera izango dugu.

Azaroak 17, osteguna, 20:00etan
Sutegi Kultur Etxeko auditorioan



ASIA ERDIALDEKOEN BIZIMODUA
EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUGU.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

**PATRI
JATETXEA**

943 362 795

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

LATXA
Kutxa denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kale Nagusia 2, Ondak - Telf: 943 301 803

Azaroaren 27an, erlea nagusi

Eztia erabiliz postre goxorik egiten ba al dakizu? Hala bada, adi egon. Erle Egunean, lehen aldiz, gozogintza lehiaketa egingo baita. Ez larritu, gero. Ez zara Arzak edo antzekoekin lehian izango. Herrikoia izango da lehiaketa.

Postreak egunean bertan aurkeztu behar dira, azaroaren 27an, pilotalekuan ezarriko den harrera mahaian (9:00etatik 10:00ak bitartean). Gogoan izan, edonork har dezake parte. Hori bai, ezta osagaietako bat behar du izan.

JULIAN URKIOLA

“Saltzaileentzat eta ekoizleentzat oso estimagarria da Erle Eguna”

Julian Urkiola Erle Laguna taldeko kide da eta ondo ezagutzen du erle mundua. Zegaman egiten den Gipuzkoako Ezti Lehiaketaren finalean ere izaten da. Handik ekarri du postre lehiaketaren ideia. Julianek azaldu digunez, “Zegaman arrakasta du. Jendeak gustura hartzen du parte. Usurbilen lehen aldiz egingo dugu”. Epaimahaiak eraba-



EZTIA EROSTEKO SALTOKIAK GERO ETA GEHIAGO DIRA ERLE EGUNEAN.

kia hartu eta gero, postreak dastatzeko aukera izango dute Erle Egunera hurbiltzen diren guztiek.

Postreak bezalaxe, ezta tostadekin dastatzeko aukera izango da.

Azaroaren 25ean, Joxe Mari Gorrotxategiren hitzaldia

Azaroaren 27a izango da egun handia. Bi egun lehenago, ordea, azaroaren 25ean, erlearen inguruko hitzaldi interesgarria eskainiko du Joxe Mari Gorrotxategi tolosarrak. Julian Urkiola Erle Laguna taldeko kideak adierazi digunez, “ezti ekoizle zein saltzaileentzat oso estimagarria da Erle Eguna. Iaz etorritako denak berriz etortzeko asmoa azaldu dute. Berriak ere badatozte”.

Egitarau oparoa

Azaroak 25, ostirala

Liburu aurkezpena

18:30. “Erlea gure sendagilea” liburuaren aurkezpena Kultur Etxean. Egilea Julio Cesar Diez argentinarra. Itzulpena eta egokitzapena: Luis Mari Inza eta Pello Zubiria. Deitzaileak: Argia astekaria eta Erle Lagunak.

Hitzaldia

19:30. “Erlearen inguruko mitoak eta Euskal Herriko erlezaintza”. Hizlaria: Joxe Mari Gorrotxategi. Kultur Etxean.

Azaroak 27, igandea

Erle Eguna 2005

9:00-10:00. Ezti zein gozogintza lehiaketako produktuen bilketa.

11:00-14:00. Erakusketa: erleak, argizaria, informazio-panelak, postuetako salmenta, musika, bertsolariak...

13:30. Ezti eta gozogintza sarien banaketa eta ezti sarrituen enkantea. Argazki lehiaketaren sari banaketa.

14:00. Egunari amaiera emateko, bazkaria Aginaga Sagardotegian (txartelak egunean bertan jarriko dira salgai).

Antolatzailea: Erle Laguna taldea.

Babesleak: Usurbilgo udala, Gipuzkoako Erlezain Elkarte, Foru Aldundia, Euskadiko Kutxa, Kutxa, Eroski, Argia.

“Erlea desagertuko balitz, akabo mundua”

Eztiarekin lotzen dugu erlea. Gozoarekin, gozogintzarekin gehienetan. Baina erlearen ekarpena askoz zabalagoa da. Julian Urkiolak azaldu digunez, “erlearen funtzio garrantzitsuenak polinizazioa da. Polinizaziorik ez balitz, ez litzateke ez lorerik, ez belarrik izango”. Honi lotuta dago Julianek askotan gogora ekartzen duen aipamena: “Einsteinek esaten zuen erlea desagertuko balitz, mundua seizazpi urtetan desagertuko litzatekeela”.

Hiru lehiaketa izango ditu aurtengo Erle Egunak

Lehen Argazki Lehiaketa

Iaz, argazki rallya egin zen lehen aldiz. Arrakasta handia izan zuen eta aurtengoa ere egingo da. Baina lehen aldiz, argazki onena aukeratzeko lehiaketa jarri da martxan. Gaia, erlea eta bere ingurunea. Oinarriak eta xehetasun gehiago, Usurbilgo udalean eskuragarri. Gipuzkoako Argazkigintza Elkarte izango da epailea. Baina Erle Egunera hurbiltzen diren ikusleek ere iritzia emateko aukera izango dute. Sari banaketa Erle Egunean bertan egingo da. Baina lehiaketarako argazkiak azaroaren 18rako bidali edo eraman beharko dira udaletxera.

VII Ezti Lehiaketa

Loreanitz batetik, lore bakarra bestetik. Lehiaketarako ezti-potoak egunean bertan aurkeztu beharko dira: azaroak 27, igandea, frontoian jarriko den harrera-mahaian, 9:00etatik 10:00etara bitartean. Erle Egunaren amaieran, ezti sarituak enkantean jarriko dira.

Lehen Gozogintza Lehiaketa

Eztiz eginiko lehen postre lehiaketa herrikoia. Osagaietako batek, gutxienez, ezta behar du izan. Postreak egunean bertan aurkeztu beharko dira: azaroak 27, igandea, frontoian jarriko den harrera-mahaian, 9:00etatik 10:00etara bitartean.

Luismari Ormaetxea, Ugarte eta Ugartondori buruz: “Teknikariek esaten dutena errespetatuko dugu”

Ugarte baserrian zein Ugartondo eremuan udalak baimendu asmo dituen proiektuek prozedura eta araudia ez dute betetzen”. Hala zioen UHLk duela hila-bete. Luismari Ormaetxea alkatearengana jo dugu eta luze-zabal azaldu dizkigu Ugarte eta Ugartondo inguruan udalak eman dituen urratsak.

NOAUA! Iaz, Ugarte baserriak zere-
san ugari eman zuen. Nola daude gau-
zak?

Luismari Ormaetxea. Ugartondo eta Ugarte bereiztu behar dira urbanistikoki. Ez du bata bestearekin zerikusirik. Ugartondoko etxebizitza promozioari dagokionez, enpresa bat Barne Erreformatarako Plan Berezia deritzana erredaktatzen ari da. Bestetik, bertan diren tailer jabeek erabaki beharko dute etxeen sustatzaile izango diren edo beste promotore baten esku utziko duten.

Ugarteri dagokionez, prozedura eta araudi mailan, guztiz zuzena izan da udalaren jarrera. Ez gabilta azpilanean, azpi-jokoan. Gardentasun osoz ari gara lanean eta kasu honetan ere, berdin. Udal teknikarien txostenak hor daude, idazkariarenak eta arkitektoarenak. Eraikinaren jabeak proposatu dituen asmoei aldeko erantzuna eman diote. Ez dute ilegalta-sun egoerarik ikusi. Udal teknikarien aldeko txostenak hor daude eta horren arabera, jabearen eskaerak udal araudia betetzen du.

LUISMARI ORMAETXEA

“Udalak ez du botako.
Izatekotan, jabeak bota edo
eraberrituko du”

N. Baina baserria eraitsia izango da ala ez?

L. O. Argi utzi nahi dut udalak ez duela botako. Izatekotan, jabeak bota edo eraberrituko du. Niri eskabadora batekin baserria botatzen marratzea, hori ez da

zuzena, gauzak oso suabe esanda. Eraikin horrek duen balioa kuestionatzen hasi zenean, azterketa sakonago bat egiteari ekin genion.

Arau subsidiarioetan bada “Eraikin katalogatuak” deritzan zerrenda bat. Egia da Ugarte katalogo horren barruan dagoela. Baina zerrenda horiek ez daude ondo eginda. Zerrenda horiei kasu eginez, Ibarrola-aundi bota daiteke. Eta orain gutxi, Eusko Jaurlaritzak monumentu historiko izendatu du. Zerrenda horiek, beraz, gaizki daude eta berritu egin behar dira. Arkitektoak baserriz baserri dabilta kasuan kasuko egoera zein den aztertzen.

N. Adituengana ere jo duzue. Zer diote?

L. M. Adituei txosten batzuk eskatu dizkiegu. Foru Aldundiko patrimonioko teknikari den Viteri jaunari, Sutegi diseinatu duen Jose Luis Loinaz arkitektoari (Unibertsitateko irakaslea eta euskal baserrietan aditua dena) eta Luis Renedori, arau subsidiarioak idatzi dituen arkitektoari. Hiruei Ugarte baserriak duen balioaz galdegin diegu eta hiruak bat datoz: bere balioa ez dela hortik zehar esaten den adinakoa. Eraikin horrek kanpotik euskal itxura duela dirudi, baina euskal baserria ezagutzen duenak ikusiko du elementu asko nahasten direla Ugarten: dimentsioak, lehioen formak... Ez dira Donostia inguruko baserrien tipologia-koak. Pentsa, baserriak barne-patio bat dauka. Poliuretanozko eta antzeko materialez hornituta dago, gainera. Noizbait interes historikoa izan badu, hori 1972an desagertu zen. Orduko jabeak eraikina eraitsi eta beste bat altxatu zuenean.

Laburbilduz, udal teknikariek diote prozedura aldetik txukun jokatu dugula Ugarteren kasuan. Bigarrenik, katalogo zerrenda batzuk ditugu zuzendu beharrekoak. Hirugarrenik, aditu batzuk diote eraikin horrek ez duela batzuk airtortzen dioten balioa. Are gehiago, nolako eraikina den ikusirik, inolako katalogo zerrendatan ezingo lukeela egon. Zerrenda zuzentzen bada, akaso Ugarte babestuen zerrendatik kanpo geratuko da. Hori gertatzen bada, zer esango dute, trikimailu



UGARTE BASERRIA.

bat erabiliz Ugarteri balioa kentzen ari garela? Hori zer izango da, alkatearen dekretazo bat?

Baserriak balio arkitektoniko-historikorik ez badu eta babestuen zerrendatik desagertzen bada, teknikoki ondo sustatutako erabakia izango da.

Foru Aldundiak dauka azken hitza

*T*eknikariek esaten dutena errespetatuko dugu”, adierazi digu alkateak. Bitarte horretan, “eraikina-
ren jabeak eraikin berri bat sortzeko baimena eskatu du. Guk zera esan diogu: baimena ematen diogula, betiere, Diputazioak behin betiko onespena ematen badio arau subsidiarioen testu birgaituari”.

Maniarik ez Ugarteri

Beraz, Luismari Ormaetxeak aitortu digunez, “Diputazioak badio Ugartek bere balioa duela eta babestuen zerrenda horretan egon behar duela, gure teknikarien irizpideen kontra bada ere, zerrendan sartuko da eta mantendu egin beharko da. Udal gobernua ez du inolako interesik baserri horretan. Ez mantentzeko, ez eraisteko. Ez diogu inolako maniarik Ugarteri. Horrela mantendu behar bada, oso ondo. Baina beste aukera batzuk suertatzen badira, aztertuak izango dira”.

Ramon Uribe, Langraizko espetxean preso: “Azken hilabeteotan gertatu dena oso larria da”

Sei preso hil dira azken hilabeteotan Langraizko espetxean (Araba). Uda partean, bi emakume presok sexu erasoak salatu zituzten. Espetxearen egoera larria izaten jarraitzen duen arren, gauzak lasaitzen hasi direla aitortu digu Ramon Uribe usurbildar presoak. NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan dioenez, “gizarteak bizkarra ematen dio arazo honi”. Ramon Uriberen esanetan, “kondena txikiak dituzten preso askok jada kalean egon beharko lukete”. Langraizko zuzendari izandakoari Espainiako Gobernuak kargu hobia eman baino lehen eta Berako Angel Alzuguren presoak hil baino lehen iritsi ziren Ramonen erantzunak.

NOAUA! Kezka iturri izan da hilabeteotan Langraizko kartzela. Zer nolako giroa dago espetxe barruan?

Ramon Uribe. Nahastua. Dena den, etxe hauetan kontu hauek ez dira berriak. Hala ere, azken hilabeteotan gertatu diren gauzak oso larriak izan dira. Bizimodua asko gogortu egin da eta honek gehiago nahastu du giroa. Preso sozialentzat egoera jasangaitza zen. Txantaia eta preso ugari jasaten dituzte. Orain, gauzak lasaigo daude.

N. Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendariak berak kartzelako egoera larria dela aitortu du. Segurtasun neurri eta kontrol egokirik ez dela onartu du. Zure segurtasuna kolokan sumatu al duzu?

R. U. Ez, ez dut nire segurtasuna kolokan ikusi. Baina euskal preso politikoek kolektiboko kide aktiboa izanik, nire

eskubideak zapalduak izan dira: ezin ikasi, gutunak jasoak, eta abar. Oraintsu, disperzioaren aurkako “txapa” bat idazteagatik 20 egunez paseatu gabe utzi gaituzte.

N. Langraitzen, hildako baten gorpua- ren ondoan xiringa bat aurkitu zuten. Drogak kalean bezain erraz eskuratu al daitezke espetxean bertan?

R. U. Tira, ez hainbeste. Baina asko mugitzen da. Nire begiekin ikusi dut. Pentsa, preso sozialen erdiak drogarekin zerikusia duten delituengatik daude espetxean.

N. Ez al dute preso horiek tratamendu berezirik jasotzen?

R. U. Gehienak metadona programetan hartuko dute parte, tratamendu eta kontrol sistema batean. Baina etsigarria da, ez baitaio drogomenpekotasunaren arazoari irtenbide egokirik bilatzen.

RAMON URIBE

“Gizarteak bizkarra ematen dio arazo honi”

N. Iraila hasieran, Langraizko 50 preso beste kartzela batzuetara eramango zituztela agindu zuten, «gainezka zegoelako». Hori egin al da?

R. U. Bai, baina presoek kopurua gehiegizkoa da oraindik. Gainera, hau ez da benetako konponbidea. Kondena txikia duten preso asko dago eta oraindik barruan daude. Batzuk jada kalean egon beharko lukete. Kode penala aldatu beharko litzateke eta expediente ugari



ESPETXE BARRUAN ATERATAKO ERRETRATUAN, RAMON URIBE.

berrikusi beharko lirateke. Horrela jeitsiko litzateke espetxeratuak kopurua.

N. Azkenik, Iñigo Lamarca EAEko Arartekoak «oso kezagarritzat» jo du Langraizko espetxeko egoera. Espetxean zaudenetik, hau al da ezagutu duzun garairik larriena?

R. U. Bai, baina hau guztia gertatu denean konturatu dira arazoak. Izan ere, espetxe barruan jende asko hiltzen da, buruaz beste dela, gaixotasunak... Kontua da gizarteak bizkarra ematen diola arazo honi. Gure kasuan, disperzio eta isolamendu politika diseinatu zenetik hona, hildako asko izan da eta une hauek oso gogorak dira guretzat, bisita garaia iristen den bakoitzean bihotza estutu egiten baitaigu.



Lehiaketa!!

			Fruitu arbola	▼	Ospa! Ut!	▼	Hizki baten izena	▼	Iragana	▼	Agiria
			* BASERRIA		Zarauzko		Gabarra txikiak		Elkarte		
			►		▼		▼		▼		
			Gorenak	►							
			Arrastoa								Leku, toki
Metal zurixka	▼	Ikurra	►	▼				Argi, hitz elkarketan	►		
Musika tresna		Jatorri atzizkia						Urrea			
►		▼				Itsas hegaztia	►	▼			
						Suitzako ibaia					Leku, toki
Azala	►					▼	Urtaro beroa	►			
Zaldi orgak							Kutxa				
►								1	►	Kontso-nantea	
								11		Egur	Leku, toki
Röntgen	►	Tumore mota	►					▼	Zaren hori	►	
Bi zati bi		Euskal fonema							Masurioa	▼	
►		▼	Dago	►		Gizon izena	►		▼		
			Kontso-nantea			Bokala					Leku, toki
Hegazti mota	►		▼			▼		Areago	►		

Egilea: LUMA.

Soluzioa: 22. orrian.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalota Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua oparituko dizugu.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea: ☐


Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Haizeak eramango al gaitu?

Urakanak gora eta urakanak behera leku guztietan

Azken aste hauetan urakan ugari egon dira munduan. Baina, ba al dakizue zer den hori? Hurrengo testuan hori adierazten saiatuko gara.

Urakanak naturak sortutako fenomenoak dira, hau da, haize-ekaitz erraldoiak. Urakanetan haizeak kiribil forma hartzen du, nolabait esateko, haize hori lurtean mugitzen da indar handiz. Haizearen abiadura hartzen da kontuan urakanen maila neurtzeko. 5 maila daude eta indartsuenak 250 kilometrotik gorako abiadura hartzen du.



Urakanak tropikoetako itsaso gehienetan sortzen dira. Atlantikoan, Karibean eta Mexikoko golkoan ekainarekin batera hasten dira. Udak aurrera egin ahala, eguzkiak iparrerantzago joaten denez, urakanak Karibearen iparrean eta mendebal-

dean sortzen dira. Horregatik, Karibeko hainbat herrialde zeharkatu ondoren (Puerto Rico, Kuba, Bahama,...), urakanak Amerikako Estatu Batuetako (AEB) ekialdeko herrialdeetara iristen dira. Lehenak Floridaraino iristen dira, baina uda aurreratua dagoenean, abuztuaren bukaeran eta irailaren hasieran, Amerikako Estatu Batuetako barrualdera ere sar daitezke. Jakina, hori beti, urakanaren indarraren arabera izango da. Denboraldi bukatuaren, ura berriro hozten hasten denean Karibean eta Mexikoko golkoan urakanak eratzen hasten dira.

Itsasoaren azaleko tenperatura zenbat eta handiagoa izan, itsasoko uraren lurrintzea hainbat handiagoa izango da. Hodeietan kondentsatzen denean, ur lurrina beroa askatzen du inguruneke atmosferara eta, ondorioz, aire beroak gora egiten du. Goranzko aireak behera presioko gunea sortzen du bere azpian eta behe presio horrek inguruko airea bere inguruan birarazten du. Horrela sortzen dira urakanak.

Urtero-urtero, uda bukaera aldean, urakanen garaia hasten da. Euskal Herrian, zorionez, ez dago urakanen eremurik, baina Amerikako Estatu Batuetako, Mexikoko eta, batez ere, Karibeko



herrialde gutxien garatuetako populazioarentzat garai beldurgarria da. Iaz, adibidez, Mitch urakanak eragin zuen triskantza ez dute luzaroan ahaztuko Erdialdeko Amerikan, ez eta aurten bertan, Katrina eta Rita urakanek AEBn sortutakoak.

Udarregi Ikastolako DBH 2B
mailako ikasleak.

Berotegi-efektua eta urakanak

AEBko zientzilari talde batek honako ondorioak ateratu ditu klimari buruz:

- Lurraren tenperatura eta uraren tenperatura igotzen ari da berotegi-efektua dela eta.
- Urakanak tenperatura epelean sortzen direnez, hauek ere ugartu egingo dira tropikoe-tan.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzealdean
943 372 795

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapex kalea, 16 beheko
(Artzabal) 943 36 09 80

EUSKAL OKELA
CALLE DE VILLANO
DE CALLE
DEL PABLO VASCO
h k k l , 4
T H 43 3 57 42

LK T
UT ZE ITZU
F UT K
ZKI K
ETXEK KKTU K
K NOEL TU K

Xabier Roteta, Cadiztik Erromara bizikletan

“Hanibalen bidea” egin du bizikletaz, astean mila kilometro inguru eginez

Interneten izan zuen Hanibalen bidearen berri. Kartagoar jeneral eta politikari izan zen Hanibal eta bere elefanteekin Cadiztik Erromarainoko bidaia egin zuen. Bizikletaz bidea egin zuen abenturazale baten webgunean topatu zuen oporretarako planik gustukoena Xabierrek. Baita osatu ere. Udan egin zuen hizpide dugun ibilbidea.

Cadizen hasi behar zuen bidaia baina “Trofeo Carranza” ospatzen zen egun horietan. Jendetzatik urrundu nahian, San Fernandon hasi zuen zeharkaldia, Cadiztik kilometro gutxira. Lehen hiru egunak okerrenak izan zirela azaldu digu Xabierrek, “Cadiz, Sevilla eta Córdoba zeharkatzen ari nintzela izugarritzko beroa egin zuen”.

Goizeko 7:00etarako martxan

Bataz beste, egunean 150 kilometro egiten zituen: “goizeko 7:00etatik 13:00era 100 bat kilometro. Bazkaldu eta berriaz ere bizikleta hartzen nuen, arratsaldeko 17:00ak alderarte, beste 50 kilometro egiten nituen”. Martxa horretara egokitzea kosta egin zitzaion, batez ere lehen egunetan.

Bere mountain bike-aren parrillan hogeiki kilo zeramatzan, janaririk ez ordea. Gosaria bezperan erosten zuen, eta bazkaltzeko zein afaltzeko tabernetan moldatzen zen. Lotarako garaian, kanping edo ostatuak aurkitzen ez zutenean, gaua pasatzeko leku lasai bat bilatzen zuen: “Italian bi edo hiru aldiz kan-



XABIER ROTETA USURBILDARRA, ABIATU BERRITAN, CADIZEN
EGINDAKO ERRETRATUAN.

patu nuen. Bertakoei arazorik izango ote nuen galdetu eta inork ez zidan trabarik jarri”.

Gehien harritu gintuena bere inprobisazioa izan zen; egunean bertan erabakitzen baitzuen non geratuko zen, non lo egin... Espainiako mapa bakarrik eraman zuen, Frantzia eta Italiakoak bidean erosi zituen. Eguraldiaren laguntzaz, hila-beteko bidaia izango zena hiru astetan osatu zuen.

Gogoa izatea, ezinbestekoa

Hiru asteko ibilbide luzea bakarrik egin zuen gainera, “bakarrik joanda bakoitzak bere burua lantzeko aukera” duela uste du Xabierrek. Bere ustez norbaitekin joateak konpainia ematen du, baina bere desabantailak ere baditu: erre-

sistentzia ezberdintasuna, eztabaidak...

Hanibalen bidea osatzeko zenbait arazo izan zituela adierazi digu: hizkuntza, liseriketa arazoren bat, gorpila baten radioen haustura eta eskorpioiaren abentura. Izan ere, ostatu bateko dutxan eskorpioi bat agertu zitzaion. Baina onik irten zen ezusteko horretatik.

Erromak eta Sienak liluratuta, datoren urterako bidaia prestatzen hasi da. “Islandia, Kuba eta Txile artean zalan-tzan nago, baina Txilera gabonetan joan beharko nuke, bertan uda abenduan baita”.

Bakarrik eta bizikletaz bidaiatu nahi dutenentzat aholku batzuk ere baditu: “bidaiatzeko gogoa izatea eta bizikletan ibiltzea gustuko izatea” besterik ez dela behar dio. Baina, batez ere, gogoa.

JUANTXO
BURDINDEGIA



KALE HABAZIA 10
243 370 000



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Zuen
publizitatea
hemen

913 560 521
publizitatea@oicogila.com

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbata, Orion autobus aldeketa Aiara
■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiarraino

Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05		09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiarratik dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze
Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

*Asteagunetan bakarrik

#Ez da Usurbilen geratzen

Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 17, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 18, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 19, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 20, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 21, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 22, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 23, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 24, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 25, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 26, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 27, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 28, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 29, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 30, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 1, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 2, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 3, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 4, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira.
Maria Jose Chucla, Kardabenaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa **noaua.com** helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/ 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan.
T Autobus aldeketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Abendua						
As.	Ar.	Az.	Oi.	Ost.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	
Hurrengo alca						

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldzikaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. Interesatuak deitu: 676636038.
- Autokarabana salgai, 4-5 pertsonentzat. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua (nagusia mekanikoa da eta garajejan lo egiten du). 13.000 euro. Tlfnoa. 653714970.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 euro-tan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 36 57 37.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astele-

- henetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Ordutegia eta baldintzak adosteko. 943 376 688 (Urbilen ondoan).
- Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko umeak zaintzeko. 943372224 Kristina (gauze).
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 943361991.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bi arratoi-txakur jaioberri ditugu, oso politak. Interesatuak deitu 943364734 zenbakira.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi-ko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. Interesatuak 657633461 telefonora deitu.
- Itsasoa arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semi-profesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 / 665 749 615 gauze.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Alazne eta Nikolas!

Azaroaren 11n sei urte bete zituen Alaznek. Nikolasek, aldiz, 83 urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak etxekoan partez!



Zorionak Oihane!

Abenduaren 1ean 9 urte egingo dituzu. Muxu handi bat eta belarritatik tiradizo bat aitaren partez.



Zorionak Maitane!

Azaroaren 19an urteak beteko dituzu. Zorionak etxekoan partez eta muxu handi bat!



Zorionak Oihana!

Berandu baina seguru. Herrikoen izenean har ezazu gure zorion agur eta besarkada beroena! Animo polita ta eutsi goiari. Maite zaitugu! Preso eta iheslariak etxera orain! Gora Euskal Herria askatua!



Zorionak Xabat!

Azaroaren 30ean bost urte egingo dituzu. Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez!



JAIOTZAK (Bake Epaitegitik jasotako informazioa)

- Ana Urkia Altuna, urriaren 6an.
- Unai Orbegoza Calvo, urriaren 9an.
- Eneko Aranguren Carbayeda, urriaren 13an.
- Iker Nazabal Aisa, urriaren 15an.
- Txomin Agirresarobe Elorza, urriaren 17an.
- Peru eta Harri Agirresarobe Rivadeneyra, urriaren 20an.
- Anne Arruti Arruti, urriaren 29an.
- Beñat Bengoetxea Muñoz, azaroaren 2an.
- Noa Faz Ayerbe, azaroaren 1ean.

HILDAKOAK

- Ramon Iparragirre Alkorta. Azaroaren 3an hil zen 66 urte zituela. Zubietan.



Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

GLG
rrk
Z ILKET
TEL 3 37 1

Agenda !!

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna

Joan den asteleheneko odol-emate saioan 56 lagun bildu ziren, aurten izan den kopururik handiena. Odol Emaileen elkarteak eskerrak eman nahi dizkie deniei.

Abenduaren 8an, bestetik, Odol Emaileen Eguna ospatuko dute. Ohiturari jarraituz, meza nagusian emaille izandakoak gogora ekarriko dituzte.

Ondoren, Antxeta Jatetxean elkartuko dira otordua egitera. Bertaratu nahi duenak, aurrez eman behar du izena:

Patxi Arruti 615 760 458.

Agustina Aristi 943 363 102.

Kattalin Arzallus 943 362 139.

Maite Salaberri 943 366 040.

* Bazkarirako txartela, 25 euro. Azaroa bukatu baino lehen eman behar da izena.

Azaroak 19, larunbata

- Zubeldia Taldearen bazkaria, Aginaga Sagardotegian. Sagardotegiko menua, 23 euro. Txartelak salgai azaroaren 17ra arte Aitzagan eta Txirristran.

Soluzioa !!

	★	S	★	U	★	E	★	I	★
	G	A	Z	T	A	Ñ	A	G	A
	★	G	A	I	L	E	N	A	K
★	Z	★	M	A	R	K	A	★	A
Z	I	T	A	R	A	★	K	A	I
★	L	A	R	R	U	A	★	U	D
K	A	R	R	O	Z	A	K	★	I
★	R	★	A	N	T	R	A	X	★
B	A	T	★	D	A	★	X	I	M
★	A	Z	T	O	R	E	A	★	A

Baserria: Gaztañaga.

Musikaren txokoa !!



Pier Paul Berzaitz, "Lili baten kantorea"

Pier-Paul Berzaitz
Zuberoako
Muskildi herrian



sortu zen 1952an eta duela 35 urte hasi zen kantatzen. Zuberotar tradizioaren maitale sutsua, betidanik saiatu izan da bere sorkuntzazko kantuekin bat egiten, oreka samur, delikatuia lortuz. Bere lehen diskoa ("Han eta Hor") 1975. urtean kaleratu zuen eta geroztik

Zuberoako hainbat pastoral idatzi ditu, ikuskizun handiak ekoitzi ("Elkano" dugu ezagunena) eta batez ere, oraingo idazle gazteekin bat kantu berriak egiteari ekin dio.

Duela bost urte "Baratze bat" ize-neko disko ederra plazaratu zuen eta orain "Lili baten kantorea" disko berria aurkeztera datorkigu, hamairu abestiz osatutako disko bikaina hau ere.

Egin kontu !!

Aloze eta Sohütako ikastolen aldeko elkartasun otarrak

Iparaldeko egoera dela eta, beharrak asetzea zeregin erraza ez denez, Alozeko Basabürüko ikastola eta Sohütako Eperra ikastolako gurasoek ondoko proposamen goxoa egiten digute hurbil ditugun Gabon eta Olentzero egunei begira. Otarrak hauek erosiz, ikastola hauek lagunduko ditugu.

Irati produktuen otarra honela osatzen da: ardi gazna (kg 1), ezti (500 gramo), "Paté" ahate gibelarekin (200 gramo), Bixkotx artesanal poltsa bat eta Zuberoako patxarana. Otarrak hauen prezioa: 48 euro.



Lagun zuberotarrek esan bezala: "züen parte hartzean bermatzen gira, eta esperantza dügü hebengo mozkinak ontsa gozatüko dütüzüela".

Otarrak hauek eskuratu nahi duenak aldeztu aurretik izena eman dezala Txirristran edo NOAUA!ko egoitzan.

AKATSAK ZUZENDUZ: Aurreko alean, akats tipografiko batzuk medio, artikuluko batzuk irakurtezin argitaratu genituen. Barka eragozpenak.

LOLI IZARRALDE lespaindegi mixtoa

Permanente inteligentia, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajua.

Zuhaitzenea, 5b Tel: 943 36 19 71

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

LAUOK ZINEBANK

VIDEO 24 H.

Egin zaitez
bazkide !!



© 943 36 34 48

Kínkíldegia

Lentzeria, arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

DENA LIKIDATZEN ARI GARA

> > > **Badator...**

gremioen gida

igeltseritza

**JOSE AIZPURUA
UNANUE**



Pintore k.1-3A Obabak.29
Lasarte-Oria Astasu
943 36 17 83 943 696852

URDANTZI

943 361 439
649 435 475
649 435 476

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470

urki-mitxe@eusklanet.net

**JOSUE
ARANZAZISTROKO**

Juan Jose enea 6
Kalezar
943 360 550
606 372 105

arutzariak



**ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZTIAK**
Tfnos. 943 361 448
Faxa 943 366 945
Orematze Indusiaritza
Erretaberrak

**ANTONIO
URRUZOLA**

Tfnos. 943 376 415
Faxa 943 360 510

**ERREZARTEA
S.L.**

MAINTENIMENDUAK
MAINTENIMENDUAK
MAINTENIMENDUAK
MAINTENIMENDUAK
MAINTENIMENDUAK

BARRENETXE

Barrena, 2008-2009
Tfnos. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barrena Etan-Iturri
ZUHETA

**JOSETXO
IKATZETA**



687 951 225

LATAILLADE



gasu, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

PORTULARRUME

bainuko altzairuak
manparak

943 364 637

**JOSEBA
ARANGUREN**

943 830 072
659 883 912

iturgintza

JAVIER ORBEGOZO



gasa - berokuntza

659 602 789
Emeka Txiki 13, 3. esk.

pinturak

andoni

943 702 517

**RAMON
BARRIO**

papereztatzea
gatele
pikor pintura...

**FERNANDO
FINTIRAK**

enpapelaketak
lurzorruak
943 366 019

iturgintza

**EUGENIO
NORIEGA**

pladurak
teatruko modulatzaileak
dekorazioak

943 365 665
616 926 025
Erdiko kalea 12

elektzitateak

IZAGUIRRE

943 365 095
609 068 111
Goiz Argi etxea 37
Kalezar

ARGILAN

Jose Luis Borja Zugasti
industria instalazioak
konponketak

943 361 380
629 272 859
Bordaberri 5 behe

eskainak

gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321

"publizitatea@noaua.com"